

1913ko VIENAKO EUSKAL GRABAKETAK, III. ERRONKARIERA

Jose M^a ETXEBARRIA

1. SARRERA

1913an TREBITSCH jauna etorri zen Vienatik Euskalerrira. Vienan 1899an sortu zen *Phonogrammarchiv* «Academia Imperial de las Ciencias» delakoaren barruan, eta Trebitsch horko lankide zen, etnografo bezela.

Jaun hau ikasketaz «a physician and amateur folklorist» zen, baina Europako herri txikienganako zaletasuna adierazi zuen eta grabaketak egin zituen, Euskal-errian, Britainan, Galesen, Irlandan eta Eskozian¹.

Euskalerrira etorri zenean helburu bi zituen Urkixok adierazi zuenez:

«En un artículo de *La Gaceta del Norte* del 28 de julio último anuncié ya la llegada al País Vasco del Dr. Trebitsch, comisionado por la *Academia Imperial de Ciencias de Viena* para impresionar discos fonográficos con trozos de todos los dialectos del vascuencie, y por el *Museo Etnográfico* de la misma capital, para formar una colección de arte popular vasco»².

Guri hemen interesatzen zaiguna, haren grabaketak dira. Grabaketa horien diskoak Vienan daude. Zintara pasatako kopia bat Euskaltzaindian dago, ni bitarteko izan nintzela kopia horiek lortzerakoan.

¹ Dietrich SCHULLER, en *Recorded Sound*, 81, 1982, 35

² RIEV, VI, 1913, «De lingüística y etnografía vasca. A propósito del viaje del Dr. Rodolfo Trebitsch», 575. Disko horien kopiak A. VILLASANTE euskaltzainburu zela lortu ziren Euskaltzaindiarentzat eta Euskalerrarentzat. Disko horietako lapurterazko grabaketak *Anuario de Eusko Folklore* aldizkariaren 36. tomoan agertu dira.

2. TREBITSCHen EUSKAL GRABAKETAK

2.1 Nondik nora ibili zen

Urkixo jaunak azaldu zuen aipatutako artikuluan etnografo honen nondik-norakoa gure artean. Honela dio berak:

«Visitó Sara y Ainhoa acompañado por el que escribe estas líneas y recorrió el resto del país vasco-francés, unas veces con M. Lacombe y otras con el laureado pintor vasco M. Gabriel Roby. En Guipúzcoa le sirvió de guía el director de *Euskalerriaren Alde* y yo le acompañé de nuevo en Vizcaya y Navarra»³.

2.2 **Metodoa.** Trebitsch-ek erabili zuen bilketa metodoa hitz gutxitan Urkixok adierazten du. Lekuko izan zen eta uste dut bere hitzak direla egokienak.

«El método que generalmente se emplea en estas investigaciones es el siguiente. Una vez escogido el individuo que ha de hablar ante el fonógrafo, se le encarga escriba un cuento, relación, trozo de historia ó algo por el estilo, en su dialecto de nacimiento, y se ejercite enseguida en la lectura del mismo, de modo que no incurra en confusiones ó tropiezos en el acto de impresionar los discos»⁴.

Grabaketa bakoitzari eransten zizkion datuak lekuko bakoitzari buruz ere aipatzen ditu. Honelako datuak nazioarteko ikerlari guztien artean onartuak daude.

Baina oraindik oraintsu Euskalerrian badaude salbuespenak. Eta horrelako datoak oso garrantzitsuak dira bilketen fidagarritasuna eta balioa adierazten dituztelako.

«Después de impresionado el disco y una vez anotados en un libro ad hoc el nombre, apellido, lugar de nacimiento, edad, oficio, oriundez de los antecesores de la persona que ha escrito y leído el texto, se copia y traduce éste al francés o al español, según los casos. Más tarde, los textos español y francés se vierten al alemán»⁵.

2.3. Alderdi onak eta mugak

2.3.1. *Fonografoaren alderdi onak eta mugak*

Urkixo ondo konturatu zen garai hartako fonografoaren alderdi onez eta mugaz. Eta hemen ere bere hitzak aipatzea deritzat zuzenena.

«La utilidad del fonógrafo para los estudios lingüísticos es indudable. En la actualidad, si queremos averiguar la pronunciación de una lengua muerta, tene-

³ Ibi., 575. orri

⁴ Ibi., 578. orri

⁵ Ibi., 578. orri

mos que contentarnos con conjeturas más o menos probables, basadas en las rimas y asonancias, en las diversas grafías de los textos de que podemos disponer, en la transcripción de palabras extrañas a la lengua de nuestro estudio: de aquí en adelante, el fonógrafo se encargará de transmitir a los lingüistas de las edades futuras, la pronunciación de casi todas las lenguas actuales»⁶.

El fonógrafo actual, no es, sin embargo, un ideal; necesita ser perfeccionado, si ha de reproducir exactamente el habla de un lugar y tiempo determinados. El desideratum sería un aparato que registrara una conversación sin que se dieran cuenta de ello los interlocutores⁷.

2.3.2. *Lekukoen alderdi onak eta mugak*

Lekukoen alderdi on eta akatsez ere ondo jabetu zen Urkixo eta berriz ere bere hitzak aipatu beharrean nago lekuko izan zenez.

«Las personas que saben leer y escribir no se atienen siempre por otro lado, a la variedad dialectal de su pueblo ó lugar. Les parece que tal ó cual forma literaria, ó leída en un autor predilecto es superior a la vulgar»⁸.

Eta beste ere eransten du:

«Del hecho citado, de que el trozo por impresionar deba ser escrito y leído, se siguen también otros inconvenientes. Los sacerdotes en general dan al texto una entonación parecida a la de sus sermones; los niños y niñas el tonillo habitual en las escuelas; y si aquellos tienden en muchos casos a substituir con palabras de Larramendi, ó de otros autores, las alienígenas en uso, es muy de temer que éstos y éstas se hagan ayudar en el desempeño de su misión»⁹.

Dena den Urkixo jaunak ere muga batzuk baditu euskararen aldetik eta egiten dituen hutsunetxoren batzuk oharretan zuzenduko ditut.

Urkixok uste zuen Schuchardt-en eskuetara iritsiko zirela honen iruzkinekin argitaratzeko baina ahaztuta egon dira oraintsu arte. Eta orain azterle apalago bat dute Grazko hizkuntzalaria baino.

3. ERRONKARIERAKO DISKOAK

2240. Diskoa

Izen-abizenak: Victoriano Marco-Pérez
Kuntzea: G

⁶ Ibi., 575-576. orri

⁷ Ibi., 576. orri

⁸ Ibi., 577. orri

⁹ Ibi., 577. orri

Enda: Euskalduna
Adina: 55
Bizibidea: Etxaguna
Jaioterria: Uztarroze, Nafarroa, Espainia
Bizitzerrria: Uztarroze
Beste non bizi izan da?:
Asko irtetzen da? Nora? Espainia, Frantzia 1913
Gurasoen bizitzerrria: Uztarroze
Aitaren jaioterria: Uztarroze
Amaren jaioterria: Uztarroze

Grabaketa

Fetxa, Lekua, Probintzia, Nazioa: 1913-IX-13, Ustarroz, Nafarroa, Espainia.
Gai mota: Uztarrozeko herriaren deskribapena
Norberarena, apartekoa, idatzia, hizkuntza, dialekto edo herri mintzaira: Euskara, erronkaria.
(Musika) Tresna:
Disko mota:
Grabatzailearen izena: Dr. R. Trebitsch
Bizibidea: Etnografoa
Traskribatzailea (Izena, Bizibidea, jaiotza hizkuntza): Julio de Urquijo

Eñonkariko Baġea dago Españañ Nabañako probinziaren, Aragokoaren eta Franziañen artian eta baġia komponentan dei zazpi idik, deitan beidra Uztañoze, Izaba, Urzainki, Eñonkari, Garde, Bidankoze eta Burgi; tempru guzietan izan da baġe kaur anitz fama ontako eta onñatuk mundu guzutik, eta Eñonkariañak izan dira betik anitz azkar, anitz sufritut eta anitz baliente, geñara šuaitan zrenian; eta koñengatik Nabañako Eñegek egin duei tempru guziez anitz mertñede eta emon duei anitz pribilegio zerbutñi andi egitan zeinein paka bates; eta andienetarik izan zen emoitea (sic) deretño tñaiñtako bere aziendeki eta saldueki (sic) Bardeara deus pakatu bage. Tempru guziez erkin da baġe kontarik anitz gizon andi eta anitñ meritotako gisa guziez; baya bi andienak izan dra eta obro fama emon deinek baġeari, Gardeko seme bat izena beizien Pedro de Bereteña eta erdaraz deitan zein «el Conde Pedro Navarro» zeren bere tempran beizen Españañako Eñege Katolikoen Generalik obena eta andieneterik; eta anitñ fama eraman zien Italiako geñetan eta guzien burina Españañolak buruzagi egin zarenian Afrikan Argelez eta Tunezes (sic). Eta bestia izan zen Eñonkariko seme bat deitan beizen Julian Gayañe eta izen zen bere tempran kantore andi bat, eta mundu guzian eñaitan dei izan dela tenorerik oben izan dena eta ezaguntu dena tempru guziez mundu kontan. Gañoa il zen aski gazte; bestela anitñ faborezitan zion bale koni, anitñ adeskide beizen bere eñiaren eta baġarendako. Baġe kaur anitñ ezaguntu da ere...

2241. diskoa

Leku guzietan anitš ardi, ari ata ašuru beitago, eta erostan beidite Nabaña eta Arago guzian; baitare, anitš lerdoi eta bagodoi beitago bere bañnian, eta egitan da anitš zur, eta eramaitan ditei lotetuk, almadietan eguatša barna, Zaragozara eta Tortosara draino. Egitan da ere baĽe kontan anitš ganzta eta zembra ardien eznetik, anitš on, eta famatuk daude guzutik; beste gaizarik ere, badago, bana utšurik alte batra, baĽeko gaizak, šuanen naz orai eleraitra Uztañozerik, ni kanko beinaz eta bapanak moitienea (sic) beitu betik bere gaizak. Uztañoze dago idirik gorena, beitago Franzia mugan, eta da baĽeko idirik obena eta obeki konserbatan diena gaiza eta kostumbre zar guziak; egunko egunian bizi dra iri kontan bederatzuein arima, tšiki gora bera; badu Eliza bat anitš eder eta andi; anitš meritotako altare andia eta kaliz eta kustodia dutienak, oro bat nola beste gaiza guziak Elizarnak. Egunko egunian dago apezjeina D. Robustiano Etšegaray, eta badu ogeita bedratšu urte Eliza kontan dagola; alkate da Santšo Gardenen etšeko burzegia, Ulpiano Marko eta Juez Munizipala da Julian Markoren burzegia, Bitoriano Marko, beita berbera gaiza kuek kontatan diezenak. Idi kontan izan da betik obro ardi eta saldo ezik baĽe guzian eta kořengatik da ere idirik abratsena.

2242. Diskoa

Nik ezaguntu dur ene tempran ogeita amar miĽa buru igaririk, baya orai dago zerbait tšikiago; saldo koriek guziak šuaitan dra San Miguelez Eřiberara eta Bardeara, eta kan egoitan dra Mayatzara draino, zeren keben, egitan beitu negian anitš elur eta tempr gaizto eta obenian (zomait) ilabetez ez dekite erkin etšetarik, eta kořengatik biařtan zuei tšatši guziek neguko Eřibrara; eta kan egitan dei etšasba eta guzia. MiĽa eta zortziein eta irurogeita baten urtean, agořileko amargarnian argitu zen idi kontan desgrazia bat anitš andi; ařastši kartan tšatši zen menditik Paskual Gořiaren neskato bat, eta aigalgaian šuan zen oiara, eta akaituk albeizagon loak ařapatu zion argia išikirik utzurik arka baten gainian; eta eretšarři zenean ekusu zien šutan zagola arka; lotšatuk šagi zen eta šuan zen beřetaren artra lotako suaren, eta ezbeizagon urik šuan zen lasterka eguatšara, ezbeizein¹⁰ eurek šakin; baya elduzeneko (sic) ura, guzia išikirik erden zien; gunian iraungitan asi zen baya suan zeneko gentia, igan zen sua satazara, eta kan beizagoan anitz autš eta belar fite išiki zen guzia eta erkin zen sua etše gainiara; eta oles (sic) eginik beizagon etše gainkura (sic) eta beste etšenak ere bai, (šuan zen artuz anitš indar suak etše baterik bestiara eta bi edo iror orenez eře zen irurogei eta bortz etše).

¹⁰ Sic. Seguraski *ezdezein* beharko luke izan.

4. TRASKRIBAKETA FONETIKOA

2240. Diskoa

(eñonkariko baleara dago eñrañan naβařako proβinciaren/ aragokoaren eta franciaren ařtian eta balearia komponentan dei saspi idik/ deitam beidra ustařose / isaβa /ursaiñki /eñonkari/gařde/bidañkose eta βuřgi// tempru γusietan isañ da baķe kauř ame fama ontako eta onřatuk mundu jusutik eta eñonkariařak isañ dra βeti anic askar /anic sufritik eta anic baljente/ geřara řwařtan srenian/eta kořeñ^m gatik naβařako eřyek eγin dwei tempru γusies anic meřćede eta emon dwei anic priβilexjo /sēřβući andi egitan seineim paka bates//

Eta andienetarik isan sen emoitea derećo ćaiřtako βere asjeñdeki eta saldueki bařđeara deus pakatu γaβe//

Tempru γusies eřkin da baķe kontarik anic gison andi eta anić meritotako γisa γusies/ bana βi arđienak isan dra eta oβro fama emon deñnek baleari/gařdeko seme bat isena βeistem pedro de βereteřa eta eřderas deitan sein «el konde Pedro naβařo»/ serem βere tempran isam beisen españako eřye katolikoen xeneralik oβena eta andienetarik// eta anić fama eraman sion italjako γeřetan eta γusiem burina españolak burusaγi eγin srenian afrikan ařxeles eta tuneses//eta βestia isan sen eñonkariko seme bat deitam beisen xuljañ gařaře eta isen sejm bere tempran kantore andi bat/ eta mundu γuřian eřařtan deř isañ dela tenorerik oβen isañ dena eta esaγuntu dena tempru γusies muñdu kořtan// gařoa il sen aski γaste// beřtela anić faβoresiten siom baķe koni/anić ađeskiđe βeįsem bere eřiaren eta balarendako//¹¹.

Beste disko bien transkribaketa egiteko ona hemen ohar batzuk:

Bokalen transkribaketa:

- i itxia bokal azentuduna denean. Kontsonante sabaikari baten ondoan doanean. Bestetan ertaina
- i irekia silaba trabatuan doanean; dardarkari bien aurrean edo atzean dagoenean eta [c] afrikariaren aurrean. Besteetan ertaina [i].
- e irekia ř-ren jarraian. Atzean [c,] eta [c] dituenen. L, ř eta n-ren aurrean, silaba trabadunean.
- e itxia, .-a mugatzailearen aurrean eta kontsonante sabaikariaren aurrean.

¹¹ J.M. ETXEBARRIA, *Euskal fonetika eta fonologia*, 14-19 eta 75-100. Komarik hitz artean badago, etena jartzen dut. Eta ez dagoenean aurreko hitzaren bukaerako bokala eta hurrengo hitzaren kontsonante eta bokala, bokalartea balitz lez transkribatzen dut. 2240 disko hau hurrengo oharren arabera transkribatuta dago. Ohar hauek, beste testu bientzat balio dute, eta ez luzatzeko eta irakurleak ondo ulertuko dituelako, ez dut beste disko bien transkribaketa osoa egin. Erroñkariari buruz bibliografia ondo ornituá B. ESTORNES LASAK, «El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearnez» en *IKER* 2, Euskaltzaindia 215-229.

- e ertaina, [et], [es] eta [eu], [ei] diptongoetan.
- a irekia, sabaikarien aurrean: [ã], [aλ], [aη], [ač], [ač], [ac]
- a itxia 1-ren aurrean silaba trabatuan doanean. Besteetan ertaina.
- o itxia [rò], [oř], [oc], [oc] silabetan. Mugatzailearen aurrean.
- o irekia silaba trabatuan, atzean duenean. Besteetan ertaina.
- u irekia goi n-erako aditz forma batzuetan. Besteetan ertaina.

Kontsonanteen traskribaketa

- p idatzita dagoenean, [p]
- t idatzita dagoenean, [t]
idatzita dagoenean, [k]
- b idatzita dagoenean, bokalar-tean badago, \bar{r} anitzaren jarraian eta l eta z-ren jarraian, [β]. Beste guztietan [b]
idatzita dagoenean, bokalar-tean, \bar{r} anitza eta z-ren jarraian, [δ]. Beste guztietan [d]
- g idatzita dagoenean, bokalar-tean, \bar{r} s eta z-ren jarraian [γ]. Beste guztietan [g]
- m idatzita dagoenean [m]. P eta b-ren aurreko n eta f-ren aurrekoa [m].
Urkixok foentikoki idatzi zuen p eta b-ren aurreko n-.
- n idatzita dagoenean [n]. Baina k eta g-ren aurrean. [ŋ]. D eta T-ren aurrean, n,
- ñ idatzita dagoenean, [ɲ]
- f idatzita dagoenean, bokalar-tean badago φ. Besteetan [f]
- j idatzita dagoenean, [x]
- z idatzita dagoenean, [s]
- s idatzita dagoenean, [s']
- x edo š idatzita dagoenean, [š]
- tz idatzita dagoenean, [c]
- ts idatzita dagoenean, [č]
- tx idatzita dagoenean, [č]
- l idatzita dagoenean, [l]. Jarrainan d eta t dituenenean, l.
- ĭ idatzita dagoenean, [λ]
- r idatzita dagoenean, [r]. Hitz bukaeran [r̄]
- ř idatzita dagoenean [ř]
- y idatzita dagoenean [j]

5. ERDAL ITZULPENAK

(Traducción de los discos 2240, 2241, 2242 por Julio de Urquijo)

El valle del Roncal está en España entre la provincia de Navarra, Aragón y Francia y el valle lo componen siete pueblos que se llaman Uztarroz, Isaba,

Urzainqui, Roncal, Garbe, (sic) Vidangoz y Burgui; en todos los tiempos este valle ha sido de gran fama y ha sido honrado por todo el mundo y los Roncaleses han sido siempre muy fuertes, muy sufridos y muy valientes cuando iban a la guerra, y por esto los Reyes de Navarra les han hecho siempre muchas mercedes y les han dado muchos privilegios para pagar los grandes servicios que les hacían; y de los mayores fue el darles derecho de bajar con sus haciendas y rebaños a las Bardenas sin pagar nada. En todos los tiempos han salido de este valle muchos grandes hombres y de muchos méritos de todos géneros, pero los dos mayores han sido y de los que más fama han dado al valle un hijo de Garde que se llamaba Pedro de Bereterra y en castellano lo llamaban «El Conde Pedro Navarro» porque en su tiempo fue el mejor y de los más grandes generales de los Reyes Católicos de España y llevó mucha fama en las guerras de Italia y sobre todo cuando los españoles se hicieron dueños en Africa, de Argel y Túnez.

Y el otro fue un hijo del Roncal que se llamó Julián Gayarre y fue en su tiempo un gran cantor y en todo el mundo dicen que ha sido el mejor tenor que ha habido y se ha conocido en todos los tiempos en el mundo entero. El pobre murió bastante joven, de otro modo hubiera favorecido mucho a este valle porque era muy amante de su pueblo y de este valle. Este valle ha sido también muy conocido...

2241.

en todos los lugares porque tiene muchas ovejas, carneros y corderos que los compran en todo Navarra y Aragón: también hay muchos pinares y hayales dentro del valle y se hace mucha madera y la llevan atada en armadias (sic) por el río abajo hasta Zaragoza y Tortosa. También se hace en este valle, mucho queso y requesón con la leche de oveja, muy bueno, y muy afamados (sic) por todas partes: también hay otras cosas. Pero dejando a un lado las cosas del valle iré ahora a hablar de Uztarroz porque yo soy de allí y cada cual lo que más quiere son siempre sus cosas. Uztarroz es el pueblo más alto porque está en el límite de Francia y es el pueblo mejor del valle y el que mejor conserva las cosas y todas las costumbres antiguas; en el día de hoy viven en este pueblo unas 900 almas poco más o menos: tiene una iglesia muy hermosa y grande, el altar mayor de mucho mérito y los cálices y custodias que tiene, así como todas las demás cosas de la iglesia. En el día de hoy está de Párroco D. Robustiano EcheGARAY, y hace 29 años que está en esta Iglesia: alcalde es el amo de casa de Sancho Garde, Ulpiano Marco, y juez Municipal el amo de casa de Julián Marco, Vitoriano Marco que es el mismo que está contando estas cosas. En este pueblo ha habido siempre más ovejas y rebaños que en todo el valle y por eso es también el más rico...

2242.

Yo he conocido en mi tiempo de 3000 (sic) cabezas¹², pero ahora hay algo menos: Todos esos rebaños bajan por San Miguel a la Ribera, y Bardenas y allá suelen estar hasta mayo, porque aquí hay en el invierno mucha nieve y tiempo muy malo y a lo mejor (algunos) meses no se puede salir de las casas, y por eso se ven obligados a bajar todos para el invierno a la Ribera y allá hacen el parto de las ovejas y todo. El 10 de agosto del año 1862 ocurrió en este pueblo una desgracia muy grande. Aquella tarde bajó del monte una moza de Pascual Gorria y después de cenar, fue a la cama. Como debía estar muy cansada cogió el sueño dejando la tea encendida encima de un arca: y cuando despertó vió que estaba ardiendo el arca: asustada se levantó y fue a coger la herrada para apagar el fuego y como no había agua fue corriendo al río para que nadie supiera nada, pero para cuando llegó encontró todo ardiendo: entonces empezó a gritar pero para cuando fue la gente, subió el fuego al sobrado y como allí había mucha paja y yerba pronto ardió todo y salió el fuego al tejado: y como estaba hecho de tablillas aquel tejado y también los de otras casas, (fue cogiendo mucha fuerza el fuego de una casa a otra y en dos o tres horas se quemaron 65 casas.

6. HIZKUNTZA ALDERDIEN AZTERKETA

Sail bakoitzean bereizgarri diren alderdiak eta ñabardurak aipatuko ditut.

6.1 Fonetika

6.1.1 *Bokalak*:

Bost dira. Ez egonkorrak beste euskalkietan bezala. Bokale bikoi-tzik ez da agertzen. K. Mitxelenak bokale sudurkariak aipatzen ditu, baina hemen ez dira agertzen ez grabaketan ez idatzian.

Desagertu eta aldatu egiten dira¹³.

Bokale galketak: leherkari eta r-ren artean: obro 2241
abratsena (idatzian dago, esanean ez)
zembra 2241; izan dra 2240; temprá 2240.

A, o-ren orde: obro 2241 (aboro)

T-ren aurrean e-desagertu
ontako (<onetako) 2240

Bokala desagertu egiten da r-ren aurrean
tempra 2240, obro 2240, zembra 2241, alte batra 2241.

¹² Euskal testuan, 30.000 esaten du.

¹³ L. MICHELENA, «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal» in *Via Domitia*, 3, 1954, 139. Adibide bakoitzak zenbaki bat darama. Zein diskotan dagoen adierazten du.

Elizarnak 2241, bedratzu 2241, burzegia 2241.
Erribrara 2242, arrastri 2242, mayatzara draino 2242.
amargarnian 2242¹⁴.

Aldaketak asimilaketaren bidez:

Asimilaketa: i-ren orde, u
guzutik 2240; baina *guzietan*, 2240;
utsurik 2241¹⁵.

Metatesia: zerbutxi 2240

Bokale elkarketak. Diptongoak eta triptongoren bat ere sortzen dute.
Diptongoak: beherunzkoak eta gorunzkoak.

Beherunzkoak:

ai: gaizarik 2241; gaiza kuek 2241; erraiten dei 2240; draino 2242;
txaisteko 2240; akaituk 2242; orai 2240; gainkura 2242; eramaiten ditei
2241.

ei: deitan beizen 2240; deitan zein 2240; egitan zeinein 2240; konpontan dei
2240; ezbezein 2242; apezjeina 2241; eramaiten ditei 2241.

oi: emoitea 2240; oiara 2242; egoitan dra 2242; bagodoi, 2241; lerdoi 2241.

au: kaur 2240, autx 2242, iraungitan 2242

eu: deus 2240

Gorunzkoak:

(wa): xuanen 2241; xuan zen 2242; eguatxara 2242.

(je): aziendeki 2240.

Diptongo aldaketak:

Beste euskalki batzuetan gertatzen da eta erronkarieraz ere bai. B-eraz:
auri; auki, auli Arratian, adibidez.

au>ai baina baldintza batzuetan
aigalgaian 2242; gaizarik 2241; akaituk 2242

au>ei: apezjeina 2241¹⁶.

eu>ei: bederatzuein 2241; zortziein 2242

-dui beste euskalkietan, hemen-doi:
bagodoi 2241; lerdoi 2241¹⁷.

Diptongoen desagerketa monoptyngatuez

au>a: anitx 2241
anitz 2240¹⁸.

¹⁴ R. M.^a de AZKUE, «Particularidades del dialecto roncalés» in *Euskera*, XII, 1931, 213 orri.

¹⁵ Ibi., 213. orri.

¹⁶ L. MICHELENA, aip. art., 134. orri.

¹⁷ L. MICHELENA, aip. art., 134. orri.

¹⁸ L. MICHELENA, aip. art., 135. orri.

Triptongoak:

Triptongoak: emon duei 2240; egin duei 2240;
xuitan zrenien 2240

6.1.2 *Kontsonanteak:*

Kontsonante fonemak hauek dira: p,b,t,d tt,g,k (Mitxelenak ez du jar-tzen zerrendan baina adibideak jartzen ditu) tz , z, ts, s, tx, x, f, y, j, m, n, ñ, l, ll, r, rr.

Testu hauetan denen adibiderik ez dago. Falta diranak tt, eta y, dira.¹⁹

Kontsonanteen artean kasu berezi bat aditzean aurkitzen dugu.

«Las excepciones relativamente son pocas, como por ejemplo tienen el sonido de r suave: kaur, esto; ur la agua; iror, laur; los verbos de presente, pretérito perfecto y futuro imperfecto de sus primeras personas del singular como ekustan dur, ekusi dur...».

ezaguntu dur 2242.²⁰

Beste euskalkietan ez dauden kontsonanteen multzo fonikoak agertzen dira:

pr, br, dr, tr: temprá, zenbra, bedratzu, batra

6.2 Morfologia

6.2.1 *Izen morfologia: deklinabidea*

NOREKIN kasuan, -ki: aziendeki 2240; zaldueki 2240

NONDIK kasuan, -rik: etxetarik 2242

ZEREZ adierzteko -rik atzizkia: eleraiztra Uztarrozerik 2240. Denpora adierazteko NON kasuaren ordez, ZEREZ kasua: temprá guziez 2240; iror orenez 2242.

NORENTZAT kasuan; -rendako: ballarendako 2240.

NORAINO, -ra draino: Tolosara draino 2241.

GENITIBO OBJETIBOA AGERTZEN DA: lotako suaren 2242

6.2.2 *Aditz morfologia*

NOR orainaldia:

da 2240

bizi dra 2241

¹⁹ L. MICHELENA, aip. art., 140. orri.

²⁰ R. M.^a de AZKUE, aip. art., 218. orri.

deitan beidra 2240
dira 2240
izan dra 2240
xuaitan dra 2240

lehenaldia:

izan zen, 2240
zrenian 2240
aditan zein 2240

NOR-NORK orainaldia

badu 2241; *beitu* 2241
erraitan dei 2240
duei 2240; *kompontan dei* 2241
erostan beidite 2241
eremaitan ditei 2241
erraitan dei 2240
konserbatan dienak 2241
kustodia dutienak 2241
emon deinek 2240

NOR-NORK lehenaldia:

beizien 2240; *deitan zein* 2240
eman zien 2240; *biartan zuei* 2240;
eraman zien 2240
Lahalera: ez dekite erkin 2242

NOR-NORI-NORK

Orainaldia: *kontatan diezenak* 2241

Lehenaldia: *faboreziten zion* 2240

Zutabea aldatuta, N-Nri-Nk jarriz, N-NK-en ordeztan:

loak arrapatu zion 2242
egin duei 2240

Aditz nagusiak

Aspektu ez burutua osatzeko -tan atzizkia, bizkaieran zenbait aditzetan bezela, beste euskalietan -ten edo -tzen dena: gorago aipatu ditudan adibideak.²¹

²¹ *Euskal gramatika. Lehen Urratsak*, II, 117. Aditz batzuetan polimorfismoa dago: dra, dira adibidez.

Aditz trinkoak

Egon aditza bakarrik agertzen da: daude 2241; badago 2241; beitago 2241; dago 2241

6.3 Lexikoa

«A»

Aigalgaian 2242: DRA : aigaldu: Cenar.²²

Almadietan 2241: almadia

Apezjeiñe 2241: apezjauna

Aziendeki 2240: abereekin

«B»

Badogoi 2241: hayal

Ballia 2240: valle

Berretaren 2242: ferretaren «herrada»

Betik 2240: beti

Burian 2240: buruan

«E»

Eguatxa 2240: ibaia

Erden 2242: DRA, s.v. «encontrar por casualidad», 2. erabilera Hemen encontrar

Eretxarri 2242: esnatu

Erkin 2242: DRA, s.v. «salir», 5. erabilera

Ertxasba 2242: parto DRA, s.v.R. Sc. ertzaro: «tiempo de parir las ovejas»

Ezaguntu 2240: ezagutu

«F»

Fite 2242: azkar, frantsesez vite

«G»

Gain 2242: cubierta, tejado

Ganzta 2241: gazta

Gunian 2242: DRA, (R) entonces

«I»

Idi 2241: hiri

Ixikirik: DRA, III, R -bid, arder, encender

Igaririk 2242: igaro, iragan

Iraungitan 2242: itzali

«K»

Kaur 2240: hau

Korreatatik 2240: horreatatik

²² P. de SOTA, L. AKESOLO, P. LAFITTE, *Diccionario Retana de Autoridades*; DRA siglekin aipatzen dut.

«L»

Lerdoi 2241: pinares

Lo 2242: itzali, amatau

Lotetuk 2241: lotuta

«M»

Mayatza(ra)ra 2242: maiatza.

Mertxede 2240: mesede

«O»

Obro 2241: gehiago, (más)

Orenez 2242: ordu

«P»

Pakatuz 2240: pagatu

«S»

Saldo 2241: rebaño, artaldea

Salduekin 2240: saldoekin, artaldea

Sataza(ra) 2242: sobrado, desván

«T»

Tempra 2240: denpora

Txaistako 2240: jeisteko

Txiki 2241: gutxi

«X»

Xagi 2242: DRA, levantarse

Xuaiten 2240: joan

«Z»

Zembra 2241: zenbera, «requesón»

6.4 Morfosintaxia

Hitzen ordena berezi bat: «lotako suaren» 2242.

Perpaua bakunak:

«nik ezaguntu dur ene tempran ogeita amar mila buru igaririk» 2242

«xuaiten dra San Migelez Erriberara» 2242

«tempra guziez erkin da balle kontarik anitz gizon andi»...2242

Perpaua konposatuak: koordinatuak eta subordinatuak edo menpekoak.

Koordinatuak: Erronkariko ballia dago Epañañ/.../ eta ballia

kompontan dei zazpi idik 2240

«eta egitan da anitz zur, eta eramaitan ditei lotetuk» 2241

Koposatu menpekoak:

— Denporazkoak: «eta anitz baliente gerrara xuaitan zrenien» 2240

«zerbutxi andi egitan zeinein pakatuz» 2240

«eta guzien burian españolak buruzagi zrenien Afrikan Argelez eta Tunezes»

2240

«eta eretxarri zenean, ekusi zien sutan xagola arka» 2242

- «bana xuan zeneko gentia, igan zen sua satazara» 2242
- Erlatiboak: «ballia komponentan dei zazpi idik deitan beidra Uztarroze...2240
«eta obro fama eman deinak balleari» 2240
«Gardeko seme bat izena beizien Pedro de Bereterra» 2240
«tenorerik oben izan dena eta ezaguntu dena tempra guziez mundu kontan»
2240.
«Bitoriano Marko beita berbera gaiza kuek kontatu diezenak» 2241
- Helburuzkoak: «xuan zen lasterka eguatxara, ezbezein eurek ere xakin» 2242
«izan zen emoitea deretxo txastako bere aziendeki eta saldueki Bardeara»
2240.
«eta xuan zen berretaran artra, lotako suaren» 2242.
- Kausal edo ziozkoak: «leku guzietan anitx ardi ari eta axuru beitago» 2241.
«eta erosten beidite Nabarra eta Arago guzian» 2241
«xuanen naz orai eleraitra Uztarrozerik ni kanko beinaz eta bapanak maitena
beitu betik bere gaizak» 2241
«Uztarroze dago idirik gorena, beitago Franziazen mugan» 2241
«eta kan egoiten dra mayatzara draino, zeren keben egiten beitu negian anitx
elur» 2242.
«deitan zein “el Conde Pedro Navarro” zeren bere tempran izan beitzen
Españako errege katolikozen generalik obena eta andienetarik» 2240.
«(Gayarre) anitx adeskide beizen bere erriaren eta ballarentako» 2240
«eta akaituk albeizagon, loak arrapatu zion argia ixikirik» 2242.
- Konparatiboak:
«idi kontan izan da betik obro ardi eta saldo ezik balle guzian» 2241
- Moduzkoak: «ekusi zien xutan zagola arka 2242.
«deus pakatu gabe» 2240
- Osagarriak: «erraitan dei izan dela tenorerik oben izan dena» 2240.
«eta badu ogeita bedratzu urte eliza kontan dagola» 2241.

7. ERRONKARIERAREN KOKAPENA

Hizkuntza batek herri baten historiako esperientzia nagusienak gordezen ditu. Hori esaten da eta erronkarierari begiratu, Euskal Herriaren zati baten bizitza eta esperientzia alor bat gordetzen zuen. Gaur galduta dago gizatalde baten bizitza esperientzien agiri hori. Euskalerria txirotu egin zen erronkaria galdu zenean. Eta Nafarroak ere bere bizitzako esperientzien atal bat galdu zuen. Eta gaur pixkat txiroago da. Hausnartzeko gauzak dira hauek, batez ere gure orde z hauteskundeetan erabakitzeke eskubidea hartu dutenentzat.

Euskalki bezala non jarri? Azkueren hitzak aipatu behar ditut. «En la clasificación de los dialectos he seguido casi a la letra la del príncipe Bonaparte, maestro en ésta como en muchas otras materias. Las variantes introducidas por mí son: considerar el roncalés no como subdialecto suletino, sino dialecto, y ver un solo

dialecto en el alto nabarro y uno también en el bajo nabarro, teniendo por simples subdialectos el septentrional y meridional del primero y el oriental y occidental del último.

Al exponer en la Introducción de la obra la declinación, derivación, composición, conjugación, etc., se verá que entre el roncalés y el suletino hay por menos tanta diferencia como entre el guipuzkoano y labortano...».²³

Hizkuntza egiturak begiratzuz, erronkaria, saraitzua eta aezkeraren artean, ez dut uste horrenbeste desberdintasunik dagoenik. Horregatik ba, ez litzake izango oker handiegi hauek denak Nafarroako Ekialdeko hizkerak bezala hartzea. Eta gero aipamenak egiteko orain arteko bidea jarraitu: Aez, Sal eta Eron erabiliz.

²³ R.M.^a de AZKUE, *Diccionario Vasco-español-francés*, XXVI-XXVII, Bilbao, 1969.